Gazteizen 1935 garren Urilaren 21an

3en mailako kardaberaztaien Idazkari jaunari:

Agur Arizmendi adiskidea: Jaakiñ det zuen Arantegira ta poliki egiña deritzat.

Baña nator gure gaiztera: Zuen araudia ta gurea ez dira muturka esta alkar joka ere ta zuen araudia beteten duanari etzaio iñ ezertxo ere kontrako gurea beteten. Baña euskera ta Euskadi'ren aurrerapenerako onedo komeni ote da gure saila edo Batzak izatea? Baietz deritzat, ta auxen azaldu nai dizutet nere eskutitz onetan. Baña lenen Asociación de Orientaciones culturales edo Jakintz Bide Batza zer dan adierazi dezadan:

Batza au guk ~~egun~~ oraiñ bi urte egiña da; batez ere Txomin Jugo-agen ta Agirre'tar Koldobika izan ziran bere egile; gureak dirala uste det gizon oek. Euskal-eriko Jakintza apaiz ta apaiz-gaien artean zabaltzeko asmotan egiña genduan. Apaiz egiñ ta Apaiztegitik urteten diran [illegible] Batza onen bazkide irauten dute. Batza aundi au zatitan banatzen da; batzuek Edestira jotzen dute, besteak Etnografira, guk euskerari jo giñion, ta Batza onen zati bat egiten genduan guk oraiñ arteko teologo euskaldunak. Batza onek eusko usai aundia du; begira Araudia'ren XII garren atalaz nola dion: "Azterketa-zelaia batez ere Euskal-eria izango da" ta erderaz: Art 12) "El País vasco será preferentemente el campo de investigación para los estudios positivos." Ta era onetan zerbait egin degu. Historia vasca, Etnografia, Linguistica, hermitas ta abarri dagozkien galderaldiak ateriak ditugu ta baita toki askotako erantzunak artuak ere. Gauz jakingariak dirala uste det.

Eusko ta euskal usai gozo ori euki ote lezake Batza oiek euskaldunak tartean ez balegoz? Ez orixe!! Orduan Jakintz Bide Batza beste batzuen mendean legoke ta beste oien mendean ezin euki lezake ez eusko usairik ta ainbat gutxiago euskal usairik. ~~Ordea~~ Baña euskal usai ori Batza oieri emateko guk euskeltzaleen izena'rekin tartean egon bear. Ta guk e-

mendik aldegiten degunearako berto batzuek.

Gañera len esan dizuten bezela, zuek dauzkatzuten erara Batza oiek galdu gabe, gure Batzak orain da gero iraunte ezin lezaioke euskerari gaitzik ekarri ta bai on apur bat.

Zuen arandia gogor zearraia da, gurea arinxeagoa; beaz norbaiti gerta lezaioke zuen arandia gogorteoz inuditzen ta gurégana etorri nai izatea. Beaz arko eman ~~nai~~ ezin ez duanari ez al zaio zaierik utzi bear euskel-barietan?

Ixikaia,.. ezereza,.. aurrerapen gutxi eman lezaiokela euskerari gure Batzak... ¿ Ez dakit guzia egia dan. Ifaz egin genituan lanak ezer ta digutx. Baña ala balitz ere geure geurea da, ~~ta~~ ur tanto bat euskeraren alde eman lezaken guztian zaituko degu.

Zuetako batzuen ustes emendik bi edo iru urtera gure Batzak il bear duala nik nere lagunei esan dietenean, "ezer erantzun didate" oba da, nion nik, "bizik negargarri bat baño eriotz osgarkua" Baña guztia alferik! bizik mardula ematen alegindudo gera ta erantzun didate

~~Beraz ba dakizute! Maite degu Jakintza Diar Batza! Maite degu~~ euskerarako bere zatia! Ta orain da gero bizi ditezen on deiskiogun bideak artzera goaz. Oietarako eskabia batzuek:

1) Zuen Batzarreko norbaitek gurean sartu nai balitke, aien utzi zaiozute

2) Zuen Batzerrokoak ez diranak gurera etorri nai baluteke, aien ez estoposorik jarri

3) Oraingo filosofiai euren arandi ta Batzak utzi gabe gure batzarrera ere etorri nai baluteke, ez zuek eragozpenik ipiñi

Gañontzean orain arte bezela lagunduko zaizute 1) Ifaz ere ~~e~~ zuen amaika liburu saldu genituen dendan guk zentimorik irabazi ~~erosi~~ gabe; den da norena zan beiñ jakingo dezute noski. 2) Euskel sariketak filosofo ta teologoentzat ipiñi genituen naiz ta oietarako filosofogandik zentimo bakarra jaso ez. 3) Sariketarako bear genituan liburuak ere, zuei erosi..

tatkoak giñitun 4) Ez naiz ortu Aldiskingi alkaiekin atera bear genduala
Batzaŕari'en erabaki genduanerz, nolako eskeintza egin zizueten: Galerak guretzat, irabaziak zuentzat. Diotan au egia dan edo ez, esan bezate Arizmendi ~~jaunak~~, Albisu ta Ermaola jaunak.

Beraz gure Batzak zuenari gatzei bada ere lagundu egiñ esan dio. Egia! Laguntza txikia ta karkaŕa! Baña emendik bi edo iru urtera iltzeko beartua dagoanak ezin aundiagorik eman; gure Batza oraiñ urte bete gaztetxko aurtxo gixo bat besterik ez bai dezute. Beiantzat al degun giztzat egiñ esen degu zuen alde. Aurerantz ere geure berekoikeri guztiak iltzite [alde batera], gerat egongo gera euskaldun anaiari dagokionez zuek eta zuek bezelako beste edozeñi lagunteko

Jakintza-Bide Batza'ko Euskaltzaleen
Idazkari
Arteagi'tar Jakin

P.D. Aldiskingiarekin zer egin bear dezuten, aŕen argi ta garbi esan.

Gauza oe guztiak ako itzes esateko asmoa nuan, baña alde batetik gauzak obetoago oldoztu bear nituan, ta bestetik biotza zauritua nenkan ongi itzegiteko. Oiegatik lasai ta patxara osoan egin nai izan dizutet eskutitz au. Ez al diozute aŕera txaŕik egingo.

Eskutitz onek erantzunik merezi badu, al bait lenbailen erantzun ~~oi~~ ta erantzunik eman nai ez ba diozute, andik edo emendik aŕen adierazi zadazute.

Agur ta agindu zuen anai euskaldunari

Artegi'tar